

MUSIKARIEI **ZIRIA** SARTU ZIETENEKOA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Patras (Grezia), K.a. 709. Musika ekitaldi batean "Patrasko Perekides, erritmo emaleak" musikariak zuzentzeko makila bat erabili zuela geratu zen jasota buztinezko taula batean. "Erdian kokatu zen, eserleku altu batean eserita, urrezko bastoi bat astintzen, txirula nahiz zitara joleak inguruan zituela (...) Perekidesek urrezko makilarekin agindua eman zuenean, eskarmentudun artista guztiak batera hasi ziren jotzen".

XVI. mendean Giovanni Perluigi da Palestrinak ere makila handi bat erabiltzen omen zuen musikariei erritmoa markatzeko. Baina ziurrenik horiek salbuespenak besterik ez ziren izan. Luzaroan orkestretako lehen biolina edo *concertino*a izan baitzen kideei noiz sartu behar zuten adierazten ziena.

XVII. mendean zenbait orkestra zuzendarik oinekin lurra joaz edo txaloka markatzen zuten erritmoa, baina emanaldi luzeetan oso nekagarria zenez geroz eta maizago lurra bastoi batez jotzen hasi ziren. 1687ko urtarrilaren 8an, Jean-Baptiste Lully *Te Deum* bat zuzentzen ari zen, Louis XIV.a Frantziakoa gaixotasun baretik onik atera zela ospatzeko. Denbora makila luze batez adierazten ari zela, nahigabe, behatz bat jo zuen lurra jo beharrean. Zauria gangrenatu zitzaion, baina Lullyk ez zien utzi sendagileei behatza anputatzen eta infekzioa zabaldu egin zen.



Alondra de la Parra orkestra zuzendari mexikarra 2014an, batuta arin eta kaltegabea eskuan duela.

LA REPÚBLICA

Martxoaren 22an hil zen. Manchesterreko Hallé orkestraren emanaldi baten kronikak dio Daniel Turk zuzendariak ere 1810ean makila bat erabili zuela, baina lurra jo beharrean airean astintzen zuela. "Makila astindu beharrezko beharraz, argi-armiarna jo zuen eta kristal zatiak gainera erori zitzaizkion". Bietako bat, edo makila txikitzen zuten edo zuzendariak euforia baretu behar zuten. Eta zuzendari grinatsuak lasaitzea zailagoa zirudienez, lehenengo aukeraren alde egin zuten.

Itxuraz, Carl Maria von Webber konpositorea izan zen, 1817an, Dresden an-

tolatutako kontzertu batean, ziri mehe eta arina, egungo batuten antzekoa, erabiltzen lehena. 1832an Felix Mendelssohn Londresera joan zen bertako Orkestra Filarmonikoarekin hainbat kontzertu ematera. Batuta erabiltzeko asmoa zuen, eta hasieran biolin-joleek kontra egin arren, azkenean makilatoxoaz zuzendu zituen musikariak. Ez dakigu biolin-joleak garai batean zuten boterea ala begi bat galtzeko beldur ziren, baina hurrengo urtetik aurrera Londresko Orkestra Sinfonikoan batuta erabiltzea ohiko bihurtu zen. ■



SANTABANTA

Kutsadura Taj Mahal horitzen ari da

Urteak dira Taj Mahaleko marmol zuria horitzen ari dela, aldian-aldian tratamendu berezia ematen dioten arren; mausoleo ezagunaren azala ezin da urez garbitu eta *peeling* moduko bat egiten diote, buztin geruzak ipiniz eta kenduz. Georgiako Teknologia Institutuko Mike Berginek horitzearen jatorria ikertzea erabaki zuen eta marmola uretan disol-

ba ezin daitezkeen karbono partikula oso txikiak zikintzen dutela ondorioztatu du. Partikula horiek argi ultramorea xurgatzen dute eta horregatik hartzen du kolore hori-marroia. *Environmental Science & Technology* aldizkarian argitaratu denez, kutsadura Taj Mahalen distirra eta, larriago dena, Agrako biztanleen osasuna arriskuan jartzen ari da. ■